

Kipu Quantum Espainiara hedatuko da Kipu Quantum Bizkaia S.L.-ren (Bilbo) merkaturatzearekin batera

Bilbo, Espainia – 2025eko uztailaren 9a – Aplikazio eta hardware bidezko konputazio kuantiko espezifikoko soluzioetan liderra den Kipu Quantum enpresak, bere filial berriaren (Kipu Quantum Bizkaia, S.L., Bilbo, Espainia) sorkuntza iragarri du gaur. Mugimendu estrategiko horrek, konpainiaren nazioarteko hedapenean funtsezko urratsa izateaz gain, Europan eta Latinoamerikan konputazio kuantikoaren erabilgarritasun industriala sustatzeko duen konpromisoa indartzen du.

Entitate berri honek Espainiako Kipu Quantum-en zentro operatibo gisa funtzionatuko du eta Bizkaia Quantum Advanced Industries (BIQAIN) inizatibarekin gertuagotik kolaboratzea ahalbidetuko du. Azken hau, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Lantik-en ekimen aitzindaria da, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako BasQ programaren barruan koka daitekeena. Era berean, filialak loturak ezarriko ditu industriako bazkide eta akademiko garrantzitsuekin.

“Kipu Quantum Bizkaia, S.L.-ren irekiera, BIQAIN ekosistemarekin gero eta gehiago kolaboratzearen ondorio naturala da. Euskal-eskualdean, nazioarteko hornikuntza-katean nabariak diren lider espezializatuak daude. Beraien lehiakortasunari eusteko, aktore horiek industria-mailan konputazio kuantikoa berenganatzeko beharra dute, eta prozesu hori errazteko gaude hemen, abantaila kuantikoaren mailara iristen diren soluzio berritzaileak aurkezteko”, adierazi zuen Daniel Volz doktoreak, Kipu Quantum-en sortzaileetako batek eta zuzendari nagusiak.

Egoitza nagusia Alemanian duelarik, eta eragiketak, orain, Espainiatik ere egiten dituztelarik, Kipu Quantum-ek soluzio kuantikoak eskainiko ditu zerbitzu gisa PLANQK plataformaren bidez (gaur egun 220 erakundek baino gehiagok erabiltzen dute plataforma hori). Kipuren teknologia algoritmiko patentatua gaur egungo hardware kuantikoaren abantaila kuantikoa desblokeatzen ari da, aplikazio industrial erabilgarrietarako, prozesadore kuantikoek eboluzionatu ahala eskalagarritasuna lortzeko ibilbide argi batekin.

“Hamarkada bat baino gehiago Bilbon ikerketa kuantikoa Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ikerbasque irakasle gisa bultzatzen aritu ondoren, Kipu Quantum Bizkaia S.L.-ren irekierak, niretzat, misio berri batekin etxera bueltatzea suposatzen du. Akademiako korridoreetan hasitako proiektu horrek, determinazioz eta harrotasunez ematen du, orain, industriadako jauzia. Filial berri honekin, soluzio kuantiko liderrak eskaintzen dizkiegu hainbat sektoreri, hala nola telekomunikazioei, bizitzaren zientziei, energiari, manufakturari eta finantzei”, gehitu zuen Enrique Solano irakasleak, Kipu Quantum-en sortzaileetako batek eta zuzendarikide exekutiboak.

“Europako sektore kuantiko moldakorrena eraikitzen ari gara hementxe bertan, Bizkaian. Kipu Quantum-en iritsierak, bertoko industriari benetako soluzio kuantikoak ulertzeko eta barneratzeko gaitasuna indartzen du. Kipu bezalako bazkideekin, ikuspegia ekintza bihurtzen dugu, eta enpresei abantaila kuantikoaren aroan sartzeko gaitasuna ematen diegu enpresei”, berretsi zuen Valentín Garcíak, Lantik-eko Berrikuntza saileko zuzendariak.

Kipu Quantum Bizkaia S.L.-k, berrikuntza kuantikoaren eta haren eragin komertzialaren arteko loturan funtsezko eginkizuna izateko asmoa du, tokiko eta nazioarteko eragileekin batera lan eginez. Bizkaia teknologia kuantikoak industrian hartzeko erreferente gisa

finkatu ahala, Kipu Quantumen presentziak agerian uzten du eskualdeak gero eta garrantzi handiagoa duela Europako mapa kuantikoan.

Kipu Quantum-i buruz

Kipu Quantum nazioarteko goraipamena duen enpresa Alemaniarra da, hainbat industria-sektorerentzat aplikazio eta hardware bidezko konputazio kuantiko espezifikoko soluzioak garatzen dituena. 2021ean sortu zenetik, Kipu Quantum-ek berrikuntza disruptiboak bultzatu ditu, abantaila kuantikoa lortuz exekuzio-denboran eta lehenengo produktu-kuantikoak garatuz. Aurrerapen horiek, industriak dituen erronkak teknologia algoritmiko berritzailearen bidez konpontzeko konpromiso irmoa dutela erakusten dute.

Enpresak bere soluzioak software kuantiko gisa eskaintzen ditu PLANQK plataformaren bidez. Plataforma horri esker, 220 erakundek baino gehiagok erraz integra ditzakete soluzio kuantikoak beraien prozesuetan. Kipu Quantum aitzindaria da, halaber, ikaskuntza automatikoaren eta konputazio kuantikoaren integrazioan. Hala, eragile adimendunak diseinatzen eta garatzen ditu hardwarea eta softwarea hartzen dituzten lan-fluxu kuantikoen barruan, horrela Konputazio Kuantiko Agentikoa (*Agentic Quantum Computing*) izeneko eremu berria sortuz. Informazio gehiago: www.kipu-quantum.com

Prentsa-kontaktua:

Joanna Folberth

Joanna.folberth@kipu-quantum.com